

ARESE ETA BEITIA'TAR PILIPA'REN

OLERKI SORTATXUA



ZORNOTZAN

Jaungoiko-Zale'ren irarkolan

1930

BEGONA ZEARRA ARRESE BEITIA
FELIPE ARRESE BEITIAREN LOBAK
ESKINITAKO OPARIA

FELIPE ARRESE BEITIA

(1841-1906)

Gorbeiara joateko asmoz etxetik urtenaz, or goaz goirantza; nekatu egin da nire laguna, eta muna egalean jarri jat arnasa artzeko. Birikak arnasaz bete dabezanean, diñost: «Au bai mendi ederra!» Eta barriro gora ta gora...

Era berean diñogu, eta sarri esan be, Arrese Beitia, Otxandioko koplari bikain-bikainaren aurrean: «Euskera ta euskalerraren kantari errime sutsua!»

Eta egia diñogu, olantxe da-ta. Urteak dirala illa dalarik, arek, zoritxarpe oiuz aurkitzen zan erriari bizia arnastu nairik, egiazko alegiñak erre zituan arek itxi euskuzan bertso-lanak, gaur be dirdaitsu dabiltz or-emenka, ta gogoz irakurten.

Poetak, poeta gerta dadin, odol-jario bear ei dau biotza. Garraxi ta oiurik sarkorrenak, itxura danez, olakoak emoten dabez, entzule ta irakurleen biotzak dardarazten dabezanak. Arresek badau adime adorerik, badau biotzondo surik, ederraren zentzuna jaso ta zapi beroetan guri eskintzeko. Gaur be, origaitik, ezagun dogu Arrese eta gizaldiz, ezilkor bai litzan, era orretan jarraituko dau gure ao, biotz ete literatura antolojietan.

Otxandion jaio zan Arrese Beitia 1841-ko maiatzaren 25-an; eta bere aroztegian, santugintzan eta olerkigintzan ainbat urte emon ondoren, berton emon eban azken arnasa be 1906-ko urtarrillaren 16-an. Aroztegi ixillean lanari egin arren, zabalik leio bat eukan berton, mundura begiratzeko. Erriko inguru eder-biziak eta leio ortatik etorkiozan albiste ta jazokunak ziran izate barrena dardarazten eutsoenak.

Euskalduna —J. Oteizak diño— aurreraka barik, zearka bizi da; begiratu, dantzatu, itz naiz idatzi zearka dagi. Ete da egia? Erdizka beinik-bein... Begiratzeko, ez dau aurrez aurre gaztel-erriak lako zabaldi azkenbakorik. Mendi garaiz ta txikiz inguratuak, eskorta baten lez, bizi gara. Dantatzeko, trikitixa mai-te dogu, baiña gogokoago jaku biribilketa, danok kanta-kantari ta jauzika. Itz-egiteko, euskaldunaren auturik bizienak mai-inguruan sortzen. Prosaz naiz olerkiz idazteko, umore onekoa dozu geienbat euskal idazlea. Pentsalari zorrotz, zuzenean ezik, zearka zorrotzago.

Otxandioar olerkaria nik ez neuke osoorik esango zearkakoa danik; baiña zuzen-zuzen ezik be, ba ekian bere pentsamentuak adierazo ta irakurlearen izate barruan dardaraka izten. Ona, adibidez, «Gure Arbola gaz-teari» deritxonean, azkenengo estrofa:

«Jakin begie bere ezpata
gaur bada biar eztala,
jakin begie sekula baña
ez dala ilgo Euskara;

Arbola zarra il bazan bere
seme bat emen badala,
eta zelan dan berau orritsu
eta besangaz zabala,

bere azpian zarren Batzarrak
oraindik eingo dirala».

Asko idatzi eban Arrese Beitiak. Beti itz-
neurtuz. Eta zoriak irripar: sarri argitara emo-
nak izan dira aren poesiak. Ona argitalpen
batzuk: 1) «Ama Euskeriari azken agurak»
(1879), «Ama Euskeriaren liburu kantaria»
(1900), «Asti-orduetako bertsozko lanak»
(1902), «Olerki Sortatxua» (1930), esku ar-
tean daukazuna; «Olerkiak» (1933), «Oler-
kiak» (1956), eta abar. Eusko-Jaurlaritzak
laster aterako dau aren olerkiz ornidutako li-
buru txukun bat.

Oso txalotua izan zan bere egunetan, eta
gerora. «Arrese es un gran poeta —idatzi
eban Kanpion-ek—, pero un poeta **euskaro**,
y a mi modo de ver, en la expresión del sen-
timiento de la Patria, el más acentuadamente
euskaro de todos». Beraz, Elizondoko euskal

jaietatik (1878) asi ta eriotzararte esku ar-
tzen eban poesi-leiaketa guztitan zan zerbai-
ten irabazle. Dizditsu ebillen aren izena.
Otxandioko untzak baizen dirdaitsu.

Euskera «eder, sendo ta ugarian» mintza-
tu zan onek, jakiña, izan zituan omenaldiak,
bizi zala eta gero. Bat, 1930-an, euskal erri-
ko idazlerik onenak parte arturik, Otxandion
bertan egin jakona.

Larrea, 1986-VI-15
AITA ONAINDIA

Ama euskeriari azken agurak

(Saritua izan zan 1880'an Elizondo'n)

Neure biotzeko Amatxo zara
Antxiñako Ama Euskera,
Seme leyal bat orain datortzu
Azken agurá emotera;
Ainbeste geía goitu ezinda
Danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu-galduta
Amatxo zoaz iltera.

Zorigaixtoan negargari ta
Dot sentimentu andia,
Geure lur maite dakustalako
Gaztelatuta jafia;
Bestela erdu, erdu ikustera,
Tubal euskeralaria,
Baña ez dozu ezagutuko
Orain zure jatofia.

Nun dira bada zure semiak
Foru ta euskera-zaliak?
Nun dira bada Tubal gure aita,
Zure ondorengo garbiak?

Nun dira bada zure ume zintzo
Eta leyalen legiak?
Nun dira, orain, orain negafak
Nun dira, nire begiak?

Agur ilun bat egin dauskue
Guraso zaŕen legiak,
Umezurtz batzuk gelditu gara
Bilosik Foru bagiak;
Izan bagiña eurek legetxe
Euskeriaren zaliak;
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura ain miragaŕiak.

Erázoigaz esango dabe
Gure urengo umiak,
Izan giñala duda bagarik
Ero ta zoro garbiak;
Jakingo dabez euskeriagaz
Genduzan eskubidiak,
Erdera-zale giñalako egin
Galdu zirala gustiak.

Zorioneko arkaitzak eta
Zorioneko mendiak,
Orain artian zuek zare izan
Foruen gordelariak;

Zuek goyetan beti euskaldun,
Ez alan beian erriak,
Ora zer gero ekari deuskun
Azkenian erderiak.

Beietan iya ez dot ikusten
Tubalen ume zintzorik;
Ez dalako gaur emen entzuten
Erderaz baño besterik;
Onexek dauka nire biotza
Naibagez erdibiturik,
Ez dodalako gure euskera
Osatuko dan usterik.

Euskeriari goroto eta
Gozau nai bere Foruak,
Dirala uste dot, baru-barutik,
Auterestia zoruak;
Izan leiteke ori alan, baña
Niri ezetz diñost goguak:
Baldin euskera bizten ezpada
Iltzat daukadaz Foruak.

Geure eruz bada, ekari dogu
Eriotzako unera,
Berebeta eder gozo ta leun au
Beste munduko atera;

Norbait ezpada laster minduten
Osasuna emotera,
Mundutik laster juan bear dau
Ama Euskerak bestera.

Ainbeste seme emon zituzan
Itxasorako zoliak,
Lioñerako ez gitxiago
Gudari bildurgañiak;
Liburuetan ta izkuntzetan
Ugari miragañiak,
Il ziran danak, ta orain il biar
Euskera maitegañiak.

Or Gernika'ko Arboliaren
Oñian dago etziñik,
Estu ta lañi iya ilian
Arnasaz bete eziñik;
Au ikusita ez ete deutsa
Iñok artuko efukirik,
Ez ete datoz bere semiak
Osagañiak arturik?

¡Ay! neure Ama, gaurko semiak
Deritxat dagoz aztuta,
Estura onetan lagundutera
Iñor ez da agertuta;

Il zaite bada bakar ta soilik
Paradisuko izketa,
Sei mila urtian ainbeste damu
Gaíatz mingotz iruntzita.

Zer al daiketzut, Ama, bakarik
Agonia estu oñetan?
Zotin, zizpuru, negaíez urtu
Etziñik zure oñetan;
Parka eskatu seme danentzat
Biotzez bene-benetan,
Zure arimia lagun ipinten
Jainkoaren eskuetan.

Zuaz mundutik orban bagarik
Zuaz mundutik garbia,
Zuaz mundutik adarau бага
Ez idi eta ez beya;
Beti goíotau, beti zapaldu
Zenduan idolatria,
Ta orain zagoz Jaunari emoten
Fedian zintzo bizia.

¡Il da Euskera! il da Euskera!
¡Betiko itxi dauz begiak!
¡Negar Arabak! negar Gipuzkoak!
Negar egin bei Bizkayak!

¡Negar arkaitzak! negar mendiak!
Agortu arte iturriak
Ainbeste geixo, ainbeste gatzen
Osasun emongariak.

¡Negar Napañak geure anayak,
Ta euskaldun Frantziakuak!
Neugaz batera danok uratu
Sentimentuz soñekuak,
Aztu istoria edo kondairak
Emengo antxiñakuak
Ta euren lekuan asi bariak,
Aurera erderazkuak.

Eta nun dozuz zeruko arbola
Zuk bere jantzi berdiak?
Zure eramok bilos dakustaz
Igar ta ezkur bagiak.
¡Ay mingaia! Gaztelako arak
Jan deutzuz sustrai gustiak,
Baita biotza, baita bañuak,
Azala itxita bestiak.

¿Zagoze oraindik zutik arkaitzak?
¿Dolortu бага mendiak?
¿Samur emoten Somorostrogaz
Zeuen ondasuntegiak?

Érotak klan klan, taun taunka olak,
Eta pil pil ituriak,
Biziro érekak baita itxasoak
Opaka afaintza ugariak?

Geyegi da ta ausi arkaitzak,
Onegi ez izan mendiak;
Lurpetuteko Euskera ila ta
Bere ondasun biziak,
Bera tontoak, bete aruak,
Erdi Gaztel-lau igararak,
Agortu érekak, lurtu itxasuak,
Agur euskeldun ibararak.

Geure eria, gizaldi danak
Zugaz dira gomutauko.
Ez dabelako beste erri bat
Zu duin garbi aurkituko;
Etsai batzuek alper-alpefik
Zure izena zikinduko,
Zeure Jaungoiko egi bakaarak
Dau oso garbi gordeko.



Bizi da ama euskera

(Saritua izan zan 1880'an Mauleon'en).

Iru gaubela Amari egiñaz
Nenguan arbolapian,
Neure begiak liortu ezinda
Bere buruko sapian;
Jaunak ez baleust gorde bizia
Ainbeste miñen erdian,
Bakezko lotan arimiau ta
Gorputza neukan obian.

Eguzki edefak ikuste ez aŕen
Negargaŕi au luŕian.
Odei ilun bat ipiñi eban
Arpegiaren auŕian;
Baltzez jantzirik agertu oi zan
Damuz goixian goixian,
Gorde ilargia, lotsaz izaŕak
Gabaz azaltzen etziran.

Ni gisajo au, Amari munka
Bekoki ta begietan,
Sur, ezpan, okotz, matraĭa biai,
Esku eta oñ otzetan;

Erdeldun askok ikusi aŕen
Estura samin oŕetan,
Ezer ez utsa bazan legetxe
Auŕera euren bidietan.

Irugaŕengo gau erdirako
Eztaŕi au zaŕatu zan,
Begiak agor, pultsuak geldi,
Ozta-ozta bizi nintzan;
Gizon argitsu bizi eder bat
Nun dakustan zeruetan,
Zuriz jantzita odei gain baten
Lauburugaz eskuetan.

Ule luze ta bizar urdiñez
Agura itzaltsu bat zan,
Odei gañian puzkaten geldi
Ikusi neyan egon zan;
Asi zanian baña beruntza,
Ez dakit nola ez zelan,
Oñaztaŕi bat baño lenago
Jausten jat albuan bertan.

Justuri batek alako otsik
Ez dau ez iñoz atera,
Mendiak dar-dar, aitzak lokaka
Euskel-efia ikara;

Ari bat legeztu ni otz ta gogor
Iya zentzun asko baga,
Ots gozo batek bertati diñost:
Jaunak gorde zagizala.

Bakia zugaz, baita anayakaz
Natortzu iragartera,
Tubal aita naz, zerutik nator
Amatxo osatutera;
Atsegin eta pozez beterik
Zerutar danak batera,
Kantetan dabe: izketa artian
Garbiena da Euskera.

Omen artian baña nituzan
Entzun nik zure negaak,
Aitu nituzan zerurañoko
Zure dei eta deadaak;
Beian itxirik ilargia ta
Eguzkia zein izaak,
Oraindik gora igoten eben
Amodio oren sugaak.

Baña nasaitu, atsedetu zaite,
Seme maitea, ez da il Ama,
Ume gaiztuen atsekabiak
Geixotu dabe ofela;

Orain guztiak negar dabe egin
Ezaguturik okeña,
Il dalakuan beti-betiko,
Euskera Ama laztana.

Negar dabe egin Bizkayak eta
Araba ta Gipuzkuak,
Negar dabe egin Napañak eta
Euskeldun Franziaquak;
Orain arteko uts egitiak
Daukazez parkatuak,
Baldin bazare añera izaten
Anayok alkar artuak.

Auxe esanda, putz egin eutsan
Ama geixuari aotik,
Eta bertati gazte bat lege
Oñen gañera zan zutik;
Eta dirautsa: Ama, jatsi naz
Zeruetatik zugaitik,
Seme leyal au il ziñala ta
Neukalako otsez lurretik.

Biziko zara baña zu emen
Munduak dirauan arte,
Lur onetara etori ziñan
Neugaz orain lau mila urte;

Etsai gaiztuak geŕa miñ asko
Ta zauri egin deutzue,
Baña oraindik, Ama, bizkoŕik
Ikusi biar zaitue.

Agur, zerura banua; eta
Geyago etzan ikusi,
Ama bakaŕik neuri begira
Eta ni baŕiz berari;
Zabal-zabalik bere besuak
Eustazan laster ezaŕi,
Sotil ta umil entzun neutsazan
Berba samuŕok berari:

Pasiño latza irago dot; ay!
Juan diran egunetan;
Neure arimiau neukan ala ez
Ez dakit gorputz onetan;
Indar baŕi ta bizi-bizi bat
Biotzian dot sometan,
Odol gastia darabildala
Uste dot neure zanetan.

Seme gustiai esan eyezu
Bizirik nazala emen,
Ta datozela txar eta onak
Danak ikusi nagien;

Mundua mundu arbolapian
Bizirik euki naizuen,
Berbeta gozo eder onetan
Sayatu danok egiten.

Egia da bai, ume-zurtz gagoz
Foru baga lotsarian,
Baña emongo arbola onek dauz
Oñiak uda bañan;
Negu gogor ta ekatx andiak
Artu gaitue erdian,
Ainbeste gatxez ez gara egon
Lenago Euskal-erian.

Baña begira, neure semia,
Arbola oni an goyan,
Nun antxiñako Lauburu zaña
Zelan daukan agirian;
Esan egizu lotsarik baga
Ta afokeria andian,
Beste gauzarik ez dala adorau
Sekula Euskel-erian.

Zuaz, bañero dirautzut eta,
Neure bedeinkaziñoaz,
Zuaz, anayak argitutera
Emen ikusi dozunaz;

Baña ez aŕen geyago nastu
Erdeldunen oiturakaz,
Neugaz bakafik biziko zare
Munduan atsegiñakaz.

Irakatsiok entzun neutsazan
Malkuak gorde eziñik,
Aldendu nintzan esku-oñetan
Laztan gozoz mun egiñik,
Neure ériari iragartera
Ez dala ez il Amarik,
Eta anayok gaitiala izan
Euskeldun garbi bakafik.

Neure anayak bat izan beti
Euskeldun siñiskeretan,
Bat izan geure uste, eretxi,
Gogo eta asmuetan;
Fede bizi bat baldin badogu
Biotz eta arimetan,
Bakez oraindik biziko gara
Mendi atx eta ibarétan.



Arbola bat

(Donkitua izan zan Bilbeko Euskaleriako

Alkartadeari 1881'an)

Arbola bat zan Paradisoan
Jaunak apropos jaia,
Mundu guztiak artu egion
Lotsa ta itzal andia,
Bere azpian bizitea zan
Aita Adanen gloria,
Andik kanpora ¿zer topau eban
Ezpada negargaria?

Arbola santu aren azpian
Bizi zan, Zeruan legez,
Eukazalako atsegin danak
Eta nekerik baperez:
¡Ay begiratu baleutsa beti
Lotsa on eta itzalez!
Mundua etzan gaur aurkituko
Onenbeste atsekabez.

Arbola bat zan Bizkayan bere,
Neure anaya laztanak,

Zeñen azpian, pozez beterik
Egoten ziran asabak,
Kerizpe zabal artan jafirik
Eginda euren Batzarak,
Buztari бага, nasai ta libre,
Bizi ziran bizkaitarak.

Bere azpian umildu ziran
Erege Gaztelakoak,
Eta lekurik ez eben izan
Sekula batiz moroak;
Atzera gura badogu izan
Libre len giñan lakoak,
Itxi daiguzan erdeldunentzat
Erdaldun diran kontuak.

Aztu daiguzan geure artean
Izan diran aserak,
Izan gaitean anaya eta
Euskaldun zintzo garbiak:
Betor guraso zaren fedea,
Betozen asaben legeak,
Bere negararak leortu daizan
Ni jayo nintzan Eriak.

¡O neure Eri maite maitea!
Zakustaz triste negarez,

Zure alabak euren buruak
Baltzez estaldu dituez;
Trentza mardoak tiraka atera
Ta sutara bota dabez,
Gaur euskaldunak dirala ofek
Ezin ezagutu leikez.

Ixildu ziran neskaxen kankak,
Mututu artzaiñ-txistuak,
Zelai zabal ta jolas-lekuak
Gaur dira basamortuak:
Aroak-beera itxasoruntza
Doiazan erekatxoak,
Gau eta egun txilioz dagoz:
¡Ay gara Gaztelakoak!

Bakarik dakust pozgaritxo bat,
Euskaldun amen fedea,
Benturaz onek bigundu leike
Jaungoikozko aserea,
Eta zerutik jatsi bañiro
Galdu zan libertadea,
Mundua mundu bizi dakigun
Gernikako Arbolea.



Etxebiko intxaurpetik

Afatsaldea badoa, mendien ostietara
Etxebiko intxaurpetik gaur dakust eguzkia,
Ingurua gustia
Daroala odei astun, afe, zurbil, lafiakaz,
Laño meiak bere batzuk dabilzala aidean,
Ke ariñen antzean.

Goyetako Aingeruen danen buru zareana,
Bestien nausitasuna dozuna antxiñatik,
Ordurik ona beti;
Esku zuri leun ofegaz giltza bati ikutuaz,
Zabaltzen da bereala gaba gure gañean,
Ordua eltzen danean,

Inguruko ibafetik aizearen egoetan
Zatorkuzan kanpaiaren taunkada negartia,
Iletea guztia;
Euskaldunak zu entzunaz burua bilostu oi dau
Ezpan, min ta biotzagaz goratu Jaungoikua,
Gure izketan deitua.

Betoz zure damu-otsok, ibar, zelai ta aldatzetan,
Goirik-goi ta mendiz-mendi, basoz-baso zabal-
txoritxuak laguntzen [tzen,

Deutsuela ulertzean, zer datoñen eurakgana,
Txio motel-motelagaz agerturik tamala,
Datoñelako gaba.

Isiltasun uts onetan lantzean bein dantzudala
Idiak dakarden burdi txiñinken ifintzia,
Artzen dot naibagia;
Astundu daroelako lañegi iraz burdia,
Ta burtziñ labantzeko eroan ez txaboia,
Intziriaka doia.

Etxebiko baseñitxo txiki onetan bizi naz,
Intxaur azpi onetantxe amaitutean lana,
Gaur ein dodan erara,
Atsedeten nagoala iñontz gozoa artuagaz,
Dakust Asaben oiturak eztirala danak il,
Motzak artu añen min.

Eguzkia joan da ta, izafak bañiz badatoz,
Asi da nire burua alpeñik amesetan,
Begitantziñoetan;
Diranakgaitik antz utsak, guzuñezko irudiak,
Idargitan kerizeak daroazanak sortu,
Nagien ikaratu.

Ontzaren uluak eta oñien *firi-firiak*,
Itxasoko olatuen zaratakaz nasturik,
Nik otoitzaz baturik;
Gogoak emoten badeust ezetsi baten antzera,

Zer dan gaur Aberi au ta, zer izan zan berau len,
Negafez dot deituten.

Sartaldera igesika joandako eguzkia,
Ni nago zatxakuzala zu joanetorlea
Bafi banatzalea;

¿Ausaz ziñoazan zurbil Efi oni ikusirik
Odol efekak botiaz egin eutsen zauria,
Akats bildurgaria?

¿Nora ezkutau zirean gure gudari efutsuak
Euren azkora, ayotz eta txuzo lantza zořotzak?
¿Nun zare adar-otsak?

Mendiz mendi ganbařuak, entzun eyen danak zoli
¡Esnatu! ¡O Bizkaitarřak Kiputz ta arabarřak.
Baita anaya napařak,
Or dira gatzelarřak
¿Non dozuez batzarřak?

¡Ze bakar aurkitzen dira Lege zafen jauregiak!
¡Zein ixilik, zein bilosik lengo batzar lekuak,
Ziranak ospetsuak!


Erabagi ain andiak nun euken yayokerea,
Bertan gozau zedin beti euskerazko bizia,
Jaunagandik jatsia.

¿Zer jazo zan bařa eunki lokařirik bageakaz?
¿Zer orduko aukera ta Euskerazko legeaz,
Uřiarřak erdereaz?

Eguzkiak agur badau, noz arte esan bagarik,
Besteak bere euskuen, ilak oi daben legez,
Euren eritik iges.

Ilun kanpaia, zuk beti gomutara dakardazu
Beste mundu bat badala, dagidan efegutu,
Baita ni nadin poztu;
Non dan beste Eguzki bat bizigari obeakaz,
Lira onek kantau daian betiko atsegiña,
Gerorako egiña.

Zure deien esanaia aituten daben guztiak,
Egaztien ots estiaz erantzünaz batera,
Nik bere euren antzera
Jaungoikoaz Lege zaña Zerutik jatsi dakigun
Bertaraño jasoten dot gau ta egun biotza,
Eske len geunkan poza.



Gabon kantak

KANTARTEA

*Goazen, goazen
Zer ete dogun bīlatzen
Gaur Belenen.
Aska baten
Ume bat ei da aurkitzen
Ume bat baña
Umeen gaiña,
Eguzkia bera baño
Askoz dana edeřago.*

Belen inguru ořetan
Zer dakit zer dan gertetan
Gau onetan,
Aiñ modutan
Aingeru taldak
Ego zabalak
Zeruetatik luřera
Soñu edeřak jotera
Datoz estalpe batera.
Goazen...

«Jaungoikoari gloria
Goyetan» diñoe guztia
Kantaldia
Aiñ aundia
Aingeruena
Zeñen azkena
«Bakea daben kantetan
Luñean gizon danetan
Borondate ondunetan».

Goazen...

Artzañak ziar mendian
An datoz nere eretxian
Bizkañian,
Gaiñ-gaiñian
Kaiku esniak,
Bildots guriak,
Intxaur, gaztaiak ugari,
Sagar, gaztañak ez muñi,
Ekarten Jesus onari.

Goazen...

Estalpe zan arek beti
Eta abereen toki
Gaur dirudi

Zeru bizi
Dudarik бага
Biurtu dala,
Nik beintzat alan dot uste,
Bestelan ezin leiteke
Batu aingeru ainbeste.

Goazen...

¡O gauza aígafia!
Mirarien miraria,
Zein egia,
Ze argia,
Igarlak bada
Aúrez esana:
Ofa or bete betean
Estalpe zantar batean
Mesias lasto artean.

Goazen...

Poztu gaitezen gizonak,
Poztu zaiteze gaur andrak,
Poztu aurak,
Poztu zaíak,
Eldu dalako
Gaur guretzako

Zorioneko eguna,
Nok dakaren osasuna
Geixorik geunkan mundura.

Goazen...

Gloria zelan Zeruan
Gloria dogu zoruan,
Orainguan,
Bai neguan,
Gaurko Eguzkia
Jaungoikokia
Zeinek ez dakus jayoten
Gaba dabena eguntzen
Ta Ama dontzela lagatzen?

Goazen...

Ongi etori, Jesus kutuna,
Ongi etori, Jesus zalduna,
Ongi Jauna
Ongi Leuna,
Zabaltze aŕen
Ainbat lasterŕen
Guri Zeruko atiak,
Zeintzuk geunkazan itxiak
Dirala mila urtiak.

Goazen...

Seme ondatzaliaren bertzuak

¡Ai zein efukaía
Ni naizan gelditu!
Neukan dote guztia
Oso dot ondatu;
Damu au biotzetik
Orain ezin kendu
Ain asko dedalako
Aita ofendidu.

¿Zein zan ni bezein maite
Aitaren semerik?
Aren amorioak
Etzeukan neuririk,
Nik, esker gaiztokoa,
Guztia azturik,
Igesi egin nion
Dotea kendurik.

Zaldi ezi bagea
Beti naiz izandu
Etzetik nintzanetik
Kanpora aldendu,
Ondamendi askotan
Sari naiz amildu,

Ur zikin ta lasetan
Egafia kendu.

Sabel ta aragiari
Naierak ematen
Gau ta egunak nituan
Asko iragoten,
Arimeaz aztuta
Goputza oso galtzen,
¡Gaxo au ez nintzala
Kontuan erortzen!

Diru ta ezer bage
Laster nintzan jañi,
Ondatuta etxean
Kenduak aitari;
Lagunak ere ozta
Ziraten igañi,
Danak abia ziran
Alde egiten niri.

Faia ta burla asko
Ta lotsariakin
Bakar bakafik nintzan
Gelditu oyekin;
Ala amoratua
Nere buruakin

Basamortu batera
Iges nion ekin

An ikusi nuen jai!
Beñiro eguna
Uste nuen nintzala
Txerrien laguna;
Oyen zai jai bear
Nilako zalduna,
Batera lo egin da
Jan bear ezkuña.

Berez lotsatu eta
Nuen nik esaten
¡Ai! zein erukaña
Jai zera emen,
Lengo egun gozoak
¿Nun dira aurkitzen?
¡Poz ta atsegin zoroak
Ai nora datozen!

.....

Negar ta sentimentuz
Nijoian bidean
Eskean mantenitzen
Lotsa gogorean,

Onelako frutuak
Bildu beaŕean
Zaldun au jaŕi nintzan
Taju edeŕean.

Noiz bait nekez elduta
Nere etxe ondora,
Aitak ikusi eta
Irten dit bidera;
Auspez etzin nintzaion
Barka eskatzera
Negar eta dedaŕez
Gero esatera.

«Aita nik zure kontra
Egin det pekatu
Eta Zeruen kontra,
Baña naiz damutu»;
Il da bezela nintzan
Itz bage gelditu,
Berak laztanka elduta
Laster nindun piztu.

Beraren bi begiak
Zizkidan ain josi
Uste nuen zirala
Iturri bizi bi;

Nere orbanetatik
Utzi nindun garbi,
Etxean sartutzeko
Ateak idiki.

Zer zoriontasuna
Nuela nigandu
Aitak ninduelako
Amorior artu,
Irten baño obeto
Nintzan etxeratu,
Sekulan geiago nik
Ez det nai aldendu.



Kristiñau on baten eriotzea

Negar, negar gaur biok, malkoetan urtu,
Bear dozuelako bakañik geratu,
Agur, emazte leyal, ta alabatxo ona,
Zurtz ia zu zara ta, ama alarguna.

Nireak egiñ dau ta badoaz indařak,
Arimau laři dauka aldendu beařak,
Sasoiaren erdian gaur noa iltera,
Eta begiok laster betiko istera.

Gorputzau txafik dago, aspaldi onetan,
Laster geratuko da sekulako lotan,
Zizpuruz or andrea, zotinka alabea,
Ia bařiz ni emen bizitza bagea.

Eřekatxo bat zelan doian itxasora,
Mundutik doa bardin bestera gizona:
Arbola argal bat da susteřik bagea,
Alan aisetxo batek isten dau botea.

Baňa zelan andia dan nik dodan gatxa,
Aisetxo bat ez eze da ekatx gařatza,
Gomuta bat otera badot ilgaria,
Guraso batentzako ęo zeň mingaria!


¿Nora joango dira ama ta alaba
Jabe bagarik laster gelditzean bada?

Jauna efuki zaite aŕen oraiñ nigaz,
Eta gomutau baŕiz biar beste bigaz.

Zer  n nire laguna bearturik biar,
Ate joka badabil limosna eskean,
Eta gosez badago nire alabea,
  Ez ete dau aseko norbaitek tristea?

Jauna onegan neukan gerorako poza,
Zoratuta bere eukan baita ama ona,
Esperantza gozoa aor nora dato  ren,
Ba  a eriotzea umil dot artuten.

E  egu egiozue oiaren o  nean,
Jesus eta Amari niretzat onean,
Jauna artu egizu ene arimea,
Agur emaztea ta agur, alabea.



Buru-azur berbarik ez daukan baten berbak

Nai badozu ikusi guztioen azkena,
Mundutaŕen atsegin ta utskeriena,
Begiok zabaldurik begira egidazu,
Ause da parakizun gizon naiz andrena.

Begira buru-azur oni dagoan eran,
Nun gelditu oi diran eder ta galantak,
Ikuste, gusto, usaiñ, entzute, naiz ikutze,
Sentiduen atsegin ta naikera danak.

Oraiñ euki ez aŕen zuk lako sentidurik
Aldikada batean guztiak nituan,
Iruditu egizu, nintzala Aita Santu,
Eŕege, general, naiz soldadu munduan.
Izpilu onetantxe ezagutu dagizun
Gizonaren luŕeko desengañotzaŕa,
Aita Santu, Eŕege, jeneral, soldadua
Zertara biurtzen dan, andi zein txikaŕa.

Merkatari sendotzat, nai badozu argaltzat,
Pentsau naizu, kristaua, nai nozun moduan,
Bata bardin bestea, dirudun ta bagea,
Zefen danok gagozan nakutzun tajuan.

Buru-azur leor, otz erdi apurtu onek,
¿Nun ditu len eukazan begi dizditzalak?

¿Nun ditu perlak basen agin ta otz zuriak,
Benturaz zuk dituzun baño askoz obak?
¿Nun ditu uré goñiz egindako uleak,
Bekoki edurki ta matral lañoskiak?
¿Nun okotz leun, biribil, nun ezpan koralezko,
¿Nun sur ta nun belafi añ ondo egiñak?
Edeñen ziranean eriotzak bat baten
Lapufak legez urten ta arapau eustazan
Azur au soil itxirik, mamiñ samur guriak,
Arak eta zapoak ¡danak jan eustezan!



Bizar-zale ta semea

—Amasei urte dodaz, ta aita maitea,
¿Ez datorkit ederto gaur zugaz yatea?
¿Zure mayan lekurik niretzat eztozu,
Neskatxeaz jateko esaten daustazu?
Ama gaur kanpoan da, baita amandrea,
¿Jaten ez dozu gura nik lagundutea?
¿Ez al naz ni benturaz etxeko semea?
¿Enaz ni neu izango zure oiñ-ordea?
¿Bakar bakañik biok egonik etxean,
Ferminagaz jango dot gaur eskaratzean?
Ez dakit ori zelan laketuten dozun,
Zer dan gauz oñen oña nai neuskizu etzun.

—Jakizu, seme Pedro, ondo dan gauzea
Eztala zulakoak aitaz bazkaltzea;
Mosuan urten arte bizar batzuk zuri,
Oñelango gauzarik ez eskatu niri;
Neuk bere jayo arte bizafa mosuan,
Eneban mayan yaten aitaren onduan;
Zuk bere artietan iruntsizu bada,
Eta orduan neugaz jezañiko zara.

Pedro erdi negaiez doa suetera,
Neskatxa Ferminagaz naste bazkaltzera,
Eta joakolako katua atzetik,
Ostikada andi bat emonda bertatik,
Dinotsa: «ua maira gure aitagana,
Mutufean zergaitik ik doan bizaia,
An bizardunak lagun orain egin daitzan
I lakoaz zefen nik ez dodan bear jan».



Azartu baten saria

Josek txari bat atzo
il eban etxean,
ta txakur asko batu
jakozan atean,
baña, bat azartu zan
sartzen sukaldera,
nok laster urten eban
kanpora atzera,
ilintien bategaz
jo eta negarez,
ta ateko txakur batek
diñotsa bai, bafez:
—¿Ainbeste txiliogaz
ta ain tayu txarean
nondik dakat zauritzar
ori bizkarean?
—Au dok sartuagaitik
beste sukaldean.
Txarto da sartutea
iñoen etxean,
baimena artu baga
lenengo atean.

Jose aixeri

Ze deabru ein dozu zartzaroan Jose?
¿Lagun on batzuk topau etzenduzan obe?
¿Zeugaz eroan бага lagun ain kokoak,
Lan ofetan ikasi egin bagakoak?
¿Bein asiko larogei urtegaz lapufen,
Ta bertan sarietan alan zara jausten?
¿Ni bifitan eginik enakutsu libre,
Zibilak zuri legez inoz eldu bage?
Egin biar ei dozuz kartzelan urten bi,
Ofa, zer buruari deusazun ekari.

—¡A! Lorentzo! Lorentzo! zu ofen kokorik
Egongo zineala eneukan usterik;
Pitxafak badabiltza sari itufira,
¿Noz edo noz ausiten guztiak ez dira?
¿Irurogei urtean ari labanetan,
Dabilana jausteak zau ikaraketan?
¿Ez dakizu txoria zifika zepoan
Badabil jausten dala nozbait lakioan?

—Enekian Jose nik alako gauzarik,
Enekian inori kentzen zenkianik;
Uste neban oraintxe zala lenengoa,
Lapufetori zala asierakoa;
Orain baña, nik dakit Jose zu maisua,
Ofetan zareala eta ez kokua;

Dakust zelan milagro ez dan jausitea,
Ezpada jausi baga, gaur arte irautea;
Parkatu egidazu neure sayo txara,
Esango dot Jose nik dala lapur zara;
Eta berari deitu eutsanak *Aixerri*,
Nik baño auferago eutsala igeri.



Anton zoli

Anton, efuki zaitut ¡ay! ondo bazenki,
Zuregaitik zeinbatek gaur diñoan gaizki,
Juana il da, alargun geratu ziñala,
Diñoa oraindiño ila bi eztala;
Eta zoazalako biar ezkontzera,
Bota gura zaitue oso ezkeñera;
¿Enozu ni ikusten iya lau urtean,
Alargun, ta alargun ilteko ustean?
—Martin, guztiz eñez da iñor juzgetea,
Alan balitza ori ondo egitea,
Bakotxak berak daki norberaren bañi,
Iragari ez añen batek auzoari;
Zuri ¿ezpadatortzu ondo ezkontzea,
Niretzat ondo dator zure abarkea?
¿Zauri andiarentzat enplatu txikia,
Ez datofela ondo, au ez ta egia?
Badakit bañitsuak, ez gitxik auzoan,
Derautsela nigaitik gaur modu gaiztoan,
Beña eragiten azur bageari
Laguntzera ezpajat bere bat etofì;
Badakit esamesak geyenez ezkontzak,
Sortuten dituela baita eriotzak,
Iraun baneu alargun beste urte bian,
¿Mutu egongo ziran miñ txaràk eñian?
Mai batek ¿zeinbat anka Martin bear ditu?

—Gitxien gitxienaz bai beñik beñi iru,
Neuk daukat koskortxo bat, ta da biribila,
Iru anka zabalez aulkitzat egiña.

—Gurekoak baña, lau bear ditu Martiñ,
Lau aldedun dalako, zutik egon dediñ,
Eta zelan dituan orain bakarik bi,
Beste bi ipintera beartuten naz ni;
Baldin zeringo baleust betiko luña jo,
Bafitsuak leuskide zutik ipiñiko?
Lagundu beaŕean, da ikusten dana,
Ni legez geratuak jausiten dirala;
Inoren ardurea pago adaŕean
Dagoala, esan zan nozbait nonbaitean,
Eta esan zalako egi au egoki,
Euskera dan artean egingo da bizi;
Martin, ura joanda egiten presea,
¿Ez dakizu alperik dala asitea?
Agaitik urak iges eñ baño lenago,
Presea egitea deritxat obago;
Kokotzat daukat bada trokara menditik,
Jausten dana auzoko bariketak gaitik;
¿Eta besteren miña mutu eukitea
Benturaz al da inok al leiken gauzea?

—Anton, nik baño dozu zuk buru ohea,
Bakotxari bai, emon bekio berea;
Ez dira bardin nire ta zure geixoa,
Zurea da nigandik alde andikoa;
Nik daukat umetxo bat, aita ta ama biak,

Zuk daukazuz bost ume guztiak txikiak,
Gañera guk daukagu etxalde edeña,
Eta zelan zarean zu bariz maizteña,
Zetarikoa daben gizonak zauria,
Atarikoa bear dau osagafia;
Ezin eta obeto agaitik Antoni,
Anton deituten deutse ta ganera *Zoli*.



Mutil zar

Artzeko ustez egazti andia,
Ez itxi galtzen eskuko txoria.

Jose, mutil zar bere kulpaz aurkitzen zan,
Pobreagaz ezkondu zeñen nai ez eban;
Bizi zan etxearen zalako jaubea,
Nai eban dote asko eukana andrea;
Diruduna ez eze, nai eban langiña,
Baita izan zediñla zolia ta fiña;
Bigun, leyal, sotil ta umil ta apatza,
Itz baten esateko on ta aberatsa;
Azkenez ez eban nai etxean efana,
Izan zedin guraso zarentzat afana;
Ezpada konpondurik aseferik бага,
Izan balitz legetxe etxeko alaba;
Entregaurik zar biai ekañen dotea,
Bizi modu eder bat laurak egitea.

.....

Oñetara oi eban Josek ames asko,
Baña ustel urteten ziran beretzako,
Zergaitik andia zan ak eukan faltea,
Alan etzan milagro ori gertatzea;
Jayokeratik eukan begi bat okeña,

Zuzena geran eutsan baleak atera;
Zeintzuegaitik arpegiz Jose zan itxusi,
Naiz da begi okeraz naikoa ikusi;
¡Zeinbat baño geyago nai eban bestea,
Kristalezko bategaz disimuletea!
Baña zelan ez eukan tokia egoki
Jafi ezinda eutsan bertan bera itxi;
Ofegaitik Josegaz inor aberatsik
Erian ez egoan, ezkonduko zanik;
Alpefik pauso asko berak eban emon,
Gaztezero guztia atan juan jakon;
Amabost urte santu eta oso osoak,
Pasau zituan lotsaz artzen ezezkoak;
Eta zitalako berogei lepuan,
Bizafa zuritua erdia mosuan;
Azkenez gobiernu txafa zelan eukan,
Amar urte geiago iruditzen eban.
Ofegaitik *mutil zar*, eutsen danak deitzen
Arpegia eutsela ofegaz gofitzen;
Ez da afitzekoa bizitea ala,
Larogei urtekoa eukalako ama;
Eta bera zalako aian zantar, zitala,
Neskatxarik etxean gura ez ebana;
Jose, aurkietan zan zeinbat maizter baño,
Etxejauna izanik, askoz okerago;
Lan asko, txarto janda; jantzita ez ondo,
Neu enintzan mutil zar a lege ez egongo;
Bai, ekarzan gaur praka zar-zar zulatuak,

Biar modu txafean berak konponduak;
Alkondara zurian bardin botoi baltza,
Josek garbiro eukan mutil zafen antza;
Ez egoan ibili zetan itanduten,
Bere tayuan eban zer zan azalduten;
Bere artean bafiz jo! zeinbat alditan!
Ibilten zan bakarik onelan berbetan!

«Euki dot eskuetan saritan txoria,
Naiz da ez izan neuk nai besteko andia;
Au da enebalako inoz nai pobrea,
Orain mutil zar naz ta biar agurea;
Eta aguratzean zer jat gertatuko?
Inok bere enau ni ikusi gurako;
Orduan izango da inirea tristeia!
Deituko deustelako *mutil agurèa*;
Eta gaur bizi banaz ganorarik бага,
Zer izango da nigaz zartzaroan bada?
Mutil zar nazalako banaz baregari,
Zer dot izan bearko gero negargari?»
Ora Jose zetara mutil zar zan bizi,
Bere efuz naikoa eginda ikusi;
Zorioneko edo gaiztoko dirua,
Gitxiago maite dau askok Jaungoikua
Geiago dabelako zeinbateg sinisten,
Zoriontasun dana an dala aurkitzen:
Baña diruan balitz utsik zoriona,
Zelan bizi alegre pobre dan gizona?

.....

Alan bere intxaufa austeko aña,
Aurkitu oi dalako nun nai egokia;
Josentzat oraindio bazan andrageya,
Bete ez aŕen diruz eukan egaña;
Zeñi deituten eutsen Juanatxo Erlea,
Fintasunez berakatz bardiñik bagea;
Gañera kristiñau on, zoli ta noblea;
Aberats asko baño Josentzat ohea;
Noren aita ta amak bañiz zelan eben,
Jose mutil ondrautzat beti ezaututen;
Pentsau eben eurentzat suiñ egitea,
Juanatxo Erleagaz bera ekontzea;
Eta alabea zelan beti zan otzana,
Egiteko aita ta amaren esana;
Ekialako bañiz Jose mutil zafak,
Zer nai eben Juanaren aita eta amak;
Mandatutxo bat egin ezkerro txoria,
Esku-eskuan eukan naiz izan txikia;
Alantxe euki oi dauz gure Jaungoikuak,
Ordenaurik gizonen estadu moduak;
Berak Joseri bere eutsan lagun egin,
Ordenauta eukanaz bai, ezkondu zedin;
Ara bada, non eta zelan erabagi,
Eban Juanatxo zala beretzat konbeni,
Ara, zelan eutsazan idigi begiak
Orain eskribiduko dodan istoriak.

.....

Feriara auzoko Pedro eta bera,
Joan zirean baten salbenta ikustera;
Peseta zuri bana arturik etxean,
Afaria tabernan jateko ustean;
Plazara jatsi eta ganauai begira,
Luzaro ebiltzala jira eta bira;
¡Erifa-erifa! joian efen bat deituaz,
Eskumako besoa goruntza jasuz;
Eskuko biletea nori enpleauko,
Prediketan ebala onelan ederto.

«Bosteun, bat gitxiago, ditut bereala
Saldu, eta bat daukat oraindik eñ бага,
Eta beronentzako gaur da suertea,
Tontakeria bat da au ez erostea;
Ea, norbait alimau bedi artutera,
Osterantzean ni neu, noa jaubetzera;
Eta gero alajak neuretzat guztiak
Izango dira danak, andi ta txikiak;
Alpefik artuko dau askok sentimentu,
Neu izango naz baña, poz eta kontentu;
Peseta bategaitik ez da, ez txantxea,
Milaka erlen gauzak puntuan artzea;
Amabi kutxiño ta amabi kolara,
Amabi lauortzeko guztiak zidaña:
Salako erloju bat, sei poltsilokoak,
Baña euren artean iru ufezkoak;
Baita diamantezko belafitakoak,
Ereñiñak daukazan baño obagoak!...»

Nor arapauko alan uluka joiala,
Albotik Pedrok urten eutsan bereala.

—Txotxo, obe dok beti eskuan txoria
Gordetea seguru, naiz izan txikia;
Largau bagarik egan doiala aidean,
Andiagoa dan bat artzeko ustean;
Ire peliguruan sartu egin bage,
Poltsan obeto juat pesetea gorde;
Norentzako alajak urtengo direan,
¿Nok jakik suërtea ikusi artean?
Ori dakiana dok gure Jaungoikua,
Ez, i lako berbari eta bafitsua;
Neure peseteagaz apaldu tabernan,
Obeto juat egin bapo ilunkeran;
Baña Jose zelan zan eñeza sinisten,
Ondasunak lañegi ebana poztuten;
Pesetea poltsatik eginik atera,
Biletearen truke emoten dau bera;
Baña ¿beretzat izan ete ziran prendak,
Kantetan eban legez kalean eñenak?
Arek bat esan eta, urten beste batek
Eginda, artu eban petardua Josek;
Fortuna jausi jakon lumero biari,
Bosteunegaz eñatu iya bereari;
Orduan esan eban: «Pedrok eñazoa
Euki dau, gordetea poltsan pesetia;
Egingo dabelako apaldu tabernan,
Ura bearko dot nik itufian edan;

Azkenez esan eban zizpuru artean:
Geiago nekau бага, iberats atzean,
Obe dot emaztetzat Juanatxo Erlea,
Pobre on bat dalako neuretzat artzea;
Ez dakidan gertatu erifeaz legez,
Pesetea galduta prendarik artu ez.»



Nekazari ernegau bat

Michel nekazaria bizi zan erneguz,
Bere suerteagaz ez inoz soseguz,
Ez eukalako arek beste egañirik,
Aberats izatea munduan bakarik;
Beti ebiñan nondik arto asko batu,
Al ebana auzoan egiñagaz ostu;
Ziñoan: «nik baneuka ondasun naikoa,
Munduan nintzateke zorionekoa»;
Bardin egoanean oyan bere lotan,
Nondik aberastuko ebiñen pentsetan;
Itzain bere bazan ta, edo noz bidean,
Ebiñan gau ta egun lana eukanean.

Burdi bat ikatzagaz bein joian olara,
Logureaz zabuka ezin joan zala;
Bildurturik etzin zan ikatzen gañean,
Idiak ez egien artu ankapean.

An bere laster lotan asten da amesetan,
Betiko aberastu zala bein benetan;
Bilbora etofita ontzi bat eukala,
Beretzako india asko ekarzana;
Eta urtenda gois gois bere baseñitik,
Gaberako atzera biurtzeagaitik;

Uste eban galopan joiala zaldian,
Aztu zan lo joiala olaruntz burdian;
Ta noz eban siñistu ontzien lekura
Elduta, sartutea dirudun barkura;
Jatsiten zalakoan luñera zalditik,
Michel ameslaria jausi zan burditik;
Eta jausi ez eze arturik burdiak,
Erdibitu eutsazan berna azur biak;
Orduan dazau zelan zoriontasuna,
Gozetako bear dan lenen osasuna;
Eta konturaturik zala kastigua,
Izan eban suerte alako gaiztua;
Diño penaz beterik: «sano banengoke,
¡Ai pobre bizi aŕen kontentu nintzake!
Osorik daukazanak almen ta zentzunak,
Kantau lei daukazala aberastasunak».



Manu fortuna

NEURE ADISKIDE MARCELINO SOROA JAUNARI

Denporak zelan aldiz
Zapataria zaldiz.

(Euskol esangia).

Praisko, ez eizu egin alegin lafegi,
Ainbeste neke бага aberastu naz ni;

Fortunarik ezin lei norberak ekafi,
Arek berak bear dau gugana etofi.

—Egia esan dozu Manu, lagun zaia,
Badakizu lanean nazala azkaia;

Beaia egin aien zu lako seik beste,
Beti aurkietan naz pobre ta arlote;

Baia, dakust munduan nagia ugari,
Diruzko efeketan eginaz igeri,

¿Zeu bere beti izan etzara zuria?

Zoia, zofiz ta zofez, gaiera josia?

Eta gaur ikusteak zaldun eginik zu,
Burura darakartaz mila pentzamentu.

Mesedez esaidazu Manu, aien bada,

¿Nondik deabru alan aberastu zara?

¿Nondik afano dozu orain saia-saia

Dirua, gastetako non nai fifi-faia?

¿Zelan jaungoiko zaitu Fortuna ofek jo,
Ez ete da zekula gugana elduko?

.....

—Afa Paisko jakizu Fortunea zer dan,
Atarikoa zanik pentsetan eneban,
Emakumearena dauka antz guztia,
Eta persona batek legetxe bizia;
Dabil eñirik efi, baterik bestera,
Joten daben guztia aberastutera;
¿Lastimaz inok ez dau bera ezaututen!
¿Agaitik aberastu gitxi da egiten!
Bestelan balekie zer dan Fortunea,
Danak naiko leukie ari ikutzea;
Orduan elitzate uelga beařik
Elitzatekelako bat bere pobrerik.

Ořegaitik, baziña nozbait aurkituko,
Fortunea dabilan eřian zu Praisko;
Besteai oi jakena gertau ez dakizun,
Ondo da bera nor dan gaur jakin dagizun.

.....

A da emakume bat, aiñ ondo egiña,
Ez zabal, ez bedařa, garbosea baña;
Gañera zelan jazten dan inor ez legez,
Afi, perla, uře ta baita diamantez;
Prinzesa danak dira bere inguruan,
Arbi lorak legetxe lařosen onduan;
Jaungoikotxo bat dala, nai nok leuke esango,
Edo bai beste mundu baten zala jayo;

Alako bati gero ¿zer egingo jako?
Aberats zein pobreak, badakizu Praisko;
Munduko eřegiņa balitza legetxe,
Danak bidea larga, zabal eta libre:
Ez da milagro alan iņor ez jotea,
Eta mundu au pobre beti ikustea.

Oraiņ esango deutsut neure istoria,
Eta kenduko dozu dudea guztia,
Ikusi daizunean zer gertatu jatan,
Banan-banan, agaitik gura deutsut esan.

¿Etzara gomutetan bein Donostiara
Joan egin nintzala ni baņuetara?
Orduan, bai, orduan leku baten antxe,
Fortuneagaz neban jo onetaraxe.

.....

‘Ondo pentsau bagarik, dranga, dranga, edan,
Bero andiATEGAZ zelan eiten neban;
Sagarduak ninduan *Moskořaz* ezkondu,
Ibilden eninduan baņa asko ondu.

Donostian bideak naiz iban zabalak
Orduan danak ziran niretzat bedarاک,
Alboruntza egiten neban bakotxean
Oi neban ertz batetik bestera artean;
¡O! zenbat ume neban egun atan bota,
Kastiguz bear neban kartzeleaz multa.

Praisko, etzan niretzat naikoa kalea,
Nasai ibili nendin bear zan plazea;
Ořegaitik egiten askok eustan baře,

Nigaz estropezauta, ez gitxik asafe;
Baibenka banenbilan, au jo, ta a tope,
Borondatez eneutsan inñori nik alde,
Ordia oi dan gisan, ez buru ta anka,
Bata eta besteak nerabiltzan loka.
Auxe zan ene Praisko, ango komedia,
Nekafela atzetik Donosti erdia.

Entzun orain zelan zan nire suertea,
Kale baten betoñen aro Fortunea;
Neure zintan ta neure alderuntza zuzen,
Eta esegiñan nik nolan niarduen;
Gura zein ez ebala, tope eitean bera,
Dinost: Manu, jo dozu Fortuna edera;
Aberatsa izango zu zara lufean,
Nai ezpadozu bere bizitza danean.

Baña, berak ekañen garboari eutsi
Ezinda, nekez zaildu egin nintzan zuti,
Obeto nai dot esan orduko golpea,
Dalako aitatzeko duiña dan gauzea;
Makileak ez baleuts, Praisko, lagun egiñ,
Oinpeko arietan artuko neban miñ:
Alan bere pipea egin jatan ausi,
Txapel erdi jantzia, sekulako jausi;
Enintzalako bera jasoteko gauza,
Eleixatu egiñ zan niretzako plaza.

¡Bai!... Oraindiño bere gogoratutean
¡Chapel arek miñ emon oi deust biotzean!

Ezetara ez aŕen txanpon bat balio,
Puskatxo bat geiago emongo neuskio;
Osabak eustalako Parisen erosi,
Eta ogei urtean nebalako jantzi.....
Praisko, ¿zer deritxazu? ez eban merezi
Armayoan gordeta eukitea beti?
Iñok egingo baleust beñik beñi, gaur biñ,
Laster artuko leukez eŕealak miñ.

Bañã, sartu gaitezán lengo lanbidera,
Donostian jazoa noa amaitzera.
Zoro bat legeŕ eta, gañera ordirik,
Alkandora ta prakak soñean bakafik,
Txanka bietan oñak, abarketa baten,
Tayu lotsagari bat zelan nik nekaŕen;
Mutiko zatar batek iya gaututean,
Arikada bat emon eustan kokotean.

Orduantxe jo neban benetan nik luŕa,
Aotik eridala bitsagaz aduŕa;
Lafi ete ninduen eingo ankaz zapal,
Aurkitzen nintzan zelai, luze aña zabal.

Jentea egitean, baña etxeratu
Ta soilik nintzanean ni bere geratu,
Loak egin ninduan kateakaz lotu,
Baita *Biaramonak* goisetik azkatu:
¡Ze pozik makileã eskuaz arturik
Praisko ni jaŕi nintzan jagita zutunik!

Nonbaitera *Moskorak* bere eustan alde,
Ez dot iñoz itandu bizi bada bere.

Esan dot istoria Donostiakoa,
Amaikatxok entzunda bañe egiñikoa;
Orain azaldu nai dot aiezkerokoa,
Dalako mundu dana afitutekoa.

.....

Eneban siñistuko Praisko ezetara
Fortuneak esanik gertauko jatala;
Esan ta egiñ oso, ak eustan igari,
Bestelan zeuk dakutsu zelan nazan jafi.
Ordurik ona dabil neugaz suertea,
Beti daukat artzea iñoz ez galtzea;
Egiñik adiskide batek testamentu,
Nondik enekiala nintzan aberastu;
Dirua dot ugari, basefia pranko;
Zorak pagau nintuan, euki afen asko,
Loterian sarturik, ilean ilean,
Miloe bat peseta geitzen dot etxean,
Agaitik deitzen deuste, gaur *Manu-Fortuna*,
Deitzen eusten guztiak, len *Manu-zorduna*.

Baña jo! inbidia madarikatua!
Deabruak munduan antxiña sartua!
¡A! badakizu Praisko ikusi eziñak,
Emoten deuskuzala tripetako miñak;
Paper bafitsu batzuk gaur dabe zabaldu
Manuk bear dabela kiebran azaldu,

Geyegi direala ditudan gastuak,
Baña, ez dabez ondo atera kontuak;
¡A! balekiez ondo nire iturriak,
¿Zer dira edateko gureko euliak?
Amar ume ditudaz, otseñak amabi,
Lau kotxe bafi-bafi, amazpi zaldi,
Madrilen jauregia, Parisen etxea,
Itxasorako bere bapor bat neurea.


¡Ñok esan bagarik, nik neuk dakit Praisko,
Jente askok zer deutsan gauzoi eretxiko;
Beintzat esango dabe ezjakin tontuak
Geyegi direala gureko kontuak;
Baña zuk legez oraiñ balekiez ondo,
Beste modu batera ¿eleukie esango?
¿Zer da burukan Praisko zezenaz ardia?
¿Ibai bat agortzeko ¿nor? nor? txindufia?
¿Onek leortu leike pozu bat sekula?
¿Ta ibai bat irunsterik iñoz gertatu da?

Kontau beyez gazetak ipuiñak ugari,
Manuk edonun dauka arpegia garbi;
Agaitik esan deutsut, Praisko, lenengoan,
Ain belu ikusirik atxuñen soloan;
Fortunea egiten ezpada etofi,
Ez dogula egingo indañez ekafi.

—Eskeñik asko Manu, mesedeagaitik
Atera nozulako duda danetatik,
Zorionean ziñan izan Donostian,
Guztiok ipinteko zure inbidian;

Neuk bere gura neuke, antxe bertan aurten,
Egun batzuk irago bañuak artuten,
Zure antzera egin daidan pruebea,
Tropezetan ete dan nigaz Fortunea.

¡Ai! alako bat balitz nik Manu gogoan,
Erabiliko neuke bizitza osoan!!!



Zortziko bat

Euskaldun jayo nintzan
Euskalduna azi,
Euskara utsik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabiltz neugaz beti,
Euskara il ezkerro
Ez dot gura bizi.

